



PACT

by **bbkΘ**



Neska-mutilek ibilbide kontzeptuala egingo dute saio hauetan, non tratu onei eta maitasun onari buruz berba egiten dugun.

HASIERA: 1. SAIOA

Hasteko, proiektua kokatuko dugu, parte-hartzaileei hemen egoteko helburua zein den esango diegu. Saioetan egingo duten ibilbidea aurkeztuko diegu.



GENERO; IDENTIDAD

AMOR ROMÁNTICO, RELACIONES SANAS

YO: AUTOCONCEPTO, IDENTIDAD

GEN / MASO

SEXUALIDAD, HETERONORMA, LIGAR

FIESTA: BUEN AMOR


PACT
by **bbk**



LEHENENGO BI SAIOAK 'NI'AREN KONTZEPTUARI BURUZKOAK DIRA

Lehenengo saioan norberaren nortasunari buruz hitz egingo dugu, nola ikusten dudan nik neure burua, eta, nire ustez, zelan ikusten nauten besteek. Horretarako, hainbat jarduera erabiliko ditugu, non bakoitzak bere burua definituko duen, eta bere gisakoei entzungo dien epaitu eta epaitua izan barik.

Bigarren saioan generoari eta identitateari buruz berba egingo dugu, gorputz-adierazpen libreko ariketa batzuen bidez. Pertsona guztiok geure gain hartzen ditugun rolak geureak diren ala kanpoko baldintzapen baten parte diren identifikatuko dugu. Pertsonak beren buruak definitzeko izan ditzaketen hainbat modu ere ezagutuko dituzte.



ONDORENGO BI SAIOETAN 'TALDE' KONTZEPTUAZ (GUTAZ) BERBA EGINGO DUGU

Hirugarren saioan maitasun erromantikoari eta harreman onei buruz hitz egingo dugu. Hemen, gizon eta emakume dikotomia behatzen saiatuko gara, desberdintasunik badagoen begiratzen, eta erlazioetan duten espazioaren arabera zelan erlazionatzen diren ikusten. Saio honetarako antzerkiaren baliabideez eta role playing-az baliatuko gara.

Laugarren saioan, nesken ahalduentzeaz eta maskulinitasun berriei buruz arituko gara. Espazioaz birjabetzea eta geuri buruzko definizio berriak landuko ditugu, erabakitze askatasunetik abiatuta geure burua eraikiz. Drag King, antzerkia eta birdefinitu ahal izateko pertsonak rol berrietan jartzen dituzten jarduerak erabiliko ditugu.




AZKEN BI SAIOETAN HARREMANAK, MAITASUNA ETA MUTILETAN / NESKETAN EGITEA IZANGO DITUGU HIZPIDE

Bosgarren saioan gure sexualitatea aztertuko dugu, nola bizi dugun, zelan garatzen den munduarekin eta nola lotzen den sexualitate hori gainerako pertsonekin. Elikatzen gaituzten eta beti gozatsuak diren ligatzeko (mutiletan/nesketan egiteko) moduak landuko ditugu. Saio honetarako, jolasetik errealitatera eroango gaituzten praktikak erabiliko ditugu. Ligatzen jolastuko gara, eta zelan moldatzen garen ikusiko dugu. Gure harremanetan indarkeria identifikatzen eta gure arteko harremanetan mugak ezartzen ikasiko dugu.

Azkenik, saio honetan Maitasun Ona landuko dugu. Saio hau saioetan parte hartu duten erakundeekin eta pertsonen topagunea izatea nahi dugu. Elkar ikusteko, ezagutzeko eta prozesu hau mugimendu handiago baten parte dela ulertzeko une bat, erakunde gehiagotako mugimendu batekin zerikusia duena.



A group of people, mostly young adults, are gathered in a room with large whiteboards. They are looking at large, hand-drawn diagrams or sketches pinned to the boards. The room has a teal and purple color scheme. A large white wavy line is drawn across the top of the image.

Bizkaiko neska-mutilei Tratu Onak lantzeko eta harreman osasuntsuak eraikitzeko gune bat eskaini nahi die PACTek, betiere inguruan duten munduarekin kritikoak diren pertsona landuak abiapuntu direla.

Horrela, prozesu osoan zehar, Sare Sozialetan komunikazio-ariketa bat egingo da modu transbertsalean, PACT prozesuak argitara eman eta ezagutarazteko, eta prozesu horiosatzen dutenek ikusi ahal izango dute hainbat erakundetako pertsonak gai berberak lantzen ari direla.

#PACTbyBBK



bbk.eus